


EAEn, 31 urtetik beherako emakumeek pairatzen dituzte genero-indarkeria kasuen %38

Azaroaren 25a Emakumeen aurkako Indarkeriaren kontrako Nazioarteko Eguna dela eta, EAeko emakume gazteei buruzko datu batzuk eskainiko ditugu jarraian.

EAEn, 2009an, 31 urte baino gutxiago duten 1.275 emakumek jasan zuten bikotekideak edo bikotekide ohiak eragindako indarkeria; beste 382k bestelako senideek eragindakoa; eta, azkenik, 183k familiaz kanpoko pertsonak askatasun sexualaren aurkako indarkeria pairatu zuten. Guztira, EAeko 1.840 emakume gaztek dagokion salaketa izapidetu dute, eta, ondorioz, genero-indarkeriaren biktimen artean erregistratu dira.

Biktimizatutako emakume gazte horietatik, %19 18 urtetik beherakoak dira. Are deigarriagoa dena: gainerako emakume gazteak ez bezala, 18 urtera arteko biktimetatik gehienek familia barruko indarkeria nozitu dute (familia barruko indarkerian ez da bikotekideak edo bikotekide ohiak eragindako indarkeria kontatzen).

Emakume gazteen (30 urtera artekoen) biktimizazioa beste adin-tarte batzuetan erregistratutakoa baino aski altuagoa da; are gehiago, adinean gora egin ahala, genero-indarkeriaren biktima diren emakumeen kopuruak behera egiten du.



Nolanahi ere, zehaztu beharra dago azken baieztapena sexu-askatasunaren aurkako indarkeria-ekintzetan baino ez dela literalki betetzen. Izan ere, bikotekideak edo bikotekide ohiak eragindako indarkeria-kasuak ugariagoak dira 31 eta 40 urte bitarteko emakumeen artean —nagusiagoen artean urritzera egiten duten arren—; familiaren barruko indarkeriari dagokionez, ez dago joera linealik.

Eusko Jaurlaritzako Herrizaingo Sailaren Genero Indarkeriaren Biktimei Laguntzeko Zuzendaritzak 2009ko urteko txostenean (*Genero-indarkeriaren biktima diren emakumeak EAE-n izenekoa*) emandako datuak dira hauek.

Esteka:

http://www.interior.ejgv.euskadi.net/contenidos/informacion/avvg_info/eu_avvg/adjuntos/INFORME_ANUAL_DAVVG_2009_eu.pdf